

Euskal Aeko biztanleak gutxiago dira, 2013ko urtarrilaren 1ean

Adindunen proportzioa handiagoa da, erkidego gehienek eta Europako herrialdeen aldean

Eustaten datuen arabera 2013ko urtarrilaren 1ean 2.178.949 lagun bizi ziren Euskal AEn. 2011ko azaroko Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuan baino 866 pertsona gutxiago; mende honetako aurreneko urteetan biztanle-hazkundera izan genuenez, inflexio-puntua da.

Gipuzkoan 2.681 biztanle gehiago ditugu, 2.599 gutxiago Bizkaian eta 988 gutxiago Araban.

Arabak, biztanle-jaitziera Gasteizi zor zaio (-1.038); gainerako udalerrietako hazkundera ez da hiriburuko jaitziera konpentsatzeko lain. Gipuzkoan, bi udalerrri handienetan (Donostia eta Irun) 1.231 pertsona gutxiago ditugu, baina gainerako udalerrietako hazkundera handiagoa da.

Bizkaian, Bilbok (-2.789), Getxok, Portugaletek, Sestaok eta Basaurik, besteren artean, biztanle-galera dute. Bilbo Handiak 3.730 lagun galdu ditu.

Eskualde honetan daude biztanle dentsitate handiendun udalerriak (km. karratuko 6.000 baino gehiago); goi-goian, Portugalete, 2013an 14.741.

Kuartango, Lagran, Bernedo, Arraia-Maeztu eta Harana, denak Arabako Mendialdean, beste muturrean ditugu, km. karratuko 8tik behera eta gainera biztanleak galtzen 2011ko bukaera aldetik.

Euskal Aeko 19 udalerritan biztanleen lautik batek baino gehiagok 65 urte edo gehiago ditu


65 urte eta gehiagokoak %20,2 dira Euskal AEn; Espainian %17,7. Gaztela eta Leon, Galizia eta Asturias, denak %23ren gaineratik, dira "zaharrenak". Europan Italia eta Alemania bakarrik daude gure proportzioaren gaineratik.

Euskal Aeko batez bestekoaren gaineratik 93 udalerrri daude, 158 azpitik. Aurrenekoen artean Bilbo, Donostia eta Barakaldo daude, erkidegoko biztanleen %30 ia.

65 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioan bi muturrak Elburgo/Burgelu (%9) eta Lagran (%38,3) dira. %10en azpitik hiru udalerrri bakarrik: Alegria-Dulantzi, Irura eta Elburgo/Burgelu; denen artean 5.272 lagun. %30en gaineratik, beste hiru: Lagran, Harana eta Elantxobe, 840 lagun.

Arabako Mendialdeko udalerrri guztietan adindun asko dagoenez, eskualdean %27 ia dugu; ondoren Markina-Ondarroa eta Debabarrena, %22.

1. grafikoa. 65 urte eta gehiagoko pertsonak, udalerrien arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal estatistika 2013

16 urte baino gutxiagoko bakoitzeko 65 urte eta gehiagoko ia 1,5

Euskal AEn 16 urte baino gutxiagoko bakoitzeko 65 urte eta gehiagoko 1,4 pertsona daude; Espainian 1,1. Proportzio honen gainera 83 udalerrri; muturrean Lagran, gazte bakoitzeko ia 7 adindun. Haranan 5, Elantxoben, Moreda Araban eta Añanan 16 urte baino gutxiagoko gazte bakoitzeko 3 adindun pasa. Beste puntan, Irura, Alegría-Dulantzi, Larraul, Elburgo/Burgelu eta Altzo; adindun bakoitzeko 2 gazte pasa.

Arabako udalerrietan ditugu biztanleen adinaren araberako muturrak; batetik tamaina txikiagatik eta edozein gertakari demografikok (migrazioak, kasu) goitik behera aldatzen duelako banaketa.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo Biztanleen Udal Estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Biztanleen Udal Estatistika. Datu-bankua